Erref. kodea: LAF-218-190 [5]

Izenburua: Hainbatetik jasotako lanak:

Artzaina: *Ameriketarik egiari bere bidea*

# AMERIKETARIK-EGIARI BERE BIDEA...

Herria kazetan leitu izan ditugu bi artikulu hunat abian diren mutikoentzat.
Batek dio kasu egizue norat ari ziztezen eta bertzeat aldiz zoazte gustian
bien arteko auzi hori nahi ginduke trenkatu gauzak diren bezela agertuz Jinkoak mundua erakusten duen bezela hala nola arbola batek bere adar guziak gero bakotchak egin dezala nahi duena.
Baitakigu aski untza eskual eraiko ala mendi hotako berri eta ez bertzen erranetarik baimen seurki guhauren gostuz. beraz iduritzenzauku zuzen dela guhaur ere mintza gaiten noiztenka bederen mementoan emen girenaz gain hasiko gira hemengotik. Ameriketarat etorri nahi duten mutikoek eta bertzek... ez dezatela uste ukan hemengo mendietan ekonomiak egiten direla bortaz borta bazter nahazten ibiliz ez eta ere igande eta astelekeu guziz mozkortuz uzteko iratzaziak iretziz eta bertzalde behar dela izpirituz eta kontzientziaz izan sano naugi batek ilabete batentzat abandonatzen bezela dituelarik bi mila edo geihiago buru gizon baten gomendio utziz eztela biziKleta baten

Donibaneko muru baten Kontra uztia bezala nahiz hartan ere izaiten den makurik aski faltatzen bada jabeak eremaiten duelarik segurik...
zendako heldu diren edo jin ahi ameriketarat denek badakité geiagoren irabazteko partikulazki eskual herrian bertzen Kondu edo mutil egon behar duenarentzat urthea egin ondoan sakelan ezar dezan bagno ala ezar ditzan hamar ez ta gauza berra... eta bertzalde hemen ere bada denetarik bainan eskual herrian ere badira nahusi batzu beren buruak baitauzkete lehenagoko enperadorek bezenbat erraiten dutenaz haimbertzetaraino nun mutil bat urtheko akordatuz geroz iduri zaiote badutela nahi dutenaren egiteko dretchoa hartaz eta ere egin arazteko zuzen edo makur: arima salbu eta ~~gibeletik akulatzen den~~ behari luzia ezin gehago Kargatu eta gibeletik akulatzen den bezela bainan harek ere... izena zombat nahi apala izana gatik aitzentzen da izariaren hartzerat sendi badu Karga ez duela sobera segurtatua botatzen du eta esprakatzen putarra dariola bichtan dena akulatzalea ez dela untsa gelditzen: eta holako zerbaitetarik direla zombat aldiz Amerikanoen gainean izaiten diren jelosiazko mespretchuak ez ta amerikanoentzat aiherkundurik izan behar untsa gostatuak zaizkote bereri dituztenak justiziak eta zoin gisetarat fijaturik ere bertzena beti bertzena da.....
bainan halare hemen pasaia bat egina dutenetan



guti da eskual Herria laudatuko duenik amerika baino hobeki:
Ameriketarat lehen aldian heldu direnak eraiteko denak heldu dira irabazi pochi bat egin bezein laster sor lekurat itzultzekotan bainan zombat itzuli dira ehunentzat? eta itzuli direnetarik ere zombat ez dira berriz jin ameriketarat eskual herrian nechkotorik ezin hatchemanez othe?..
berdin ba... bena berdin ez!.. lehentchago ere kasu hunen gainean ichilik egonez bizikiz hobeki eldu izan gira... aldi huntan erranen dugu eskual herrian gelditu izan direnetan ere bazitazkela gerochot gotik jinen zirenak berriz ameriketarat ochtion aipatzen ginduen beharri luziari ezartzen zaikon Karga hura ukan ez balute bizkarean lotua ezin botatuzko gisan: zendako nahio jin ameriketarat (Oh) hemen lanean artzia balio duelakotz eta bakean bizi ez parta sehurki ontasunik charrena osagarritik landa nahiz osagarriaren afera ere parte hauk egiten duen

Erlistoneari ez girela halaeket segitzen bichtanda sasoinka segurik bizpa hiru ehun kilometretan girelarik elizatik ez girela laster batez juaiten ahal mezaren entzuterat bainan anhitzek segurik gure gogo bihotzak eskual herrian igande guziz elizan dabiltzan batzuk baino garbiago dauzkagu zeren baitira igande guziz elizan dabiltzanak eta bertze gisan bizi dira animaleak bezela errezebitu dituzten sakramenduak bazterrerat utziak aspaldi

eta bertze bizi molde bati lotuak: baiman halare ardura Kominiatzen eta Kopeta gora badoatza mahain saindulik gibelerat ez dute (Yesus) gogoan baiman denak Kompatzen dituztela, zentzuz oso balira pentza lezakete ez dutela nehore Kompatzen eta berezili norbait ez eta ere eginen;

Solasa aitzina segi dezagun eskual herrian laborantcharen segitzeko Kuraiarentzat zer egiten dute berren burruak Karguetan sar araziak dituzten gizon iduriek beren burruak untza zerbitzatzen behatzea aski da heien ibiltzeko manerari... baiman erranahi dut bertzen onarentzat ala garguak emaiten dazkoten indarrak menekoeri mende~~Ka~~tzeko dituzte?... Yende miserable batzuk beren biziaren erdia sakrifikatu lancan leher eginik aizanez etche tipi baten jabe izanahiz eta bertze erdia hura eskuetan ezin atchikiz lanetan hogoi urthetarat heldu ondoan, gizon mozkor baten gainean gertatu izan den errekontruaren medioz etchia akabo egun batetik ~~batetik~~ bertzerat: heriko burruzagitik hasirik denak etchearen Kontra aterazirelakotz armadako minichtro~~a~~nokoan denak beren Kideko zituztelakotz untsa Yostatu ziren defendiatzalerik ez zuten Yende gaichoen gainean.

Heietarik urruntchago bizi izana gatik... betidanik ere ez izanez zilharra... ezagun dute zombaitek eskuetan dituzten ontasunak ez dituztela hambat



gostaiak beren izerdiez bertzenaz balukete ikustate geiago bertzentzat eta preseski bertzen artekotzat on izaiteko nor harek berak behar luke frogatua ukan bere izerdiaz zombat gostatzen den laborantzako lana gorputzari eta izerdi heien gainerat zombat contra egin beharden gogoari askotan den etcherik ttipienaz yabetzeko eta inkela menduak berzalde,,

Eskalerren gaineko mailerat hutsik higaiten den harek ez du chuchen jujatzen ahal Kargarekin juaiten dena zombat nekatzen den:

Bainan etzaiote deusetaz importarik beren parrak pasatzen dituzten ber zuzen edo makur:

Apezekin untsa izaitea aski zaiote berek dakitenaren gatik Kampoz --- gero nahi dutenaren egiteko barnez

Artetik eraiteko amerikeltan pasaia bakar batzu egiten dituen haro haundi batek ez dia aitortu bere gisako balentria zaroa Kampagna tarro batean tripako hertzeak untsa bero arazi ondoan araiz... nik bezembat zarkerria nehork ez dek egiten eta apezekilan biziki untsa nuk!...

Bainan aipatzen ditugun Kargu dunen barneak ilhunegiak dira golkoan daukaten beren gisako balentria faltsu eta madarikatuaren aitortzeko: gisa hortan baderamate saila beren gusturat Kampoko zuriarekin estaltzen dutela barneko beltza..

presuna batzuik beren matela zimelak-zebaitekilan leguntzen dituzten bezela!...
Pena égin garä da halako batzuin Konpagnian izaitea gatik gukarteko herresta batzu zombatetaraino eskutik juaiten diren bozkez orhoitzen, direlarik soineko pantalonak ere eman lezazkete berak baino aiseago itzulikatzen direneri ordainen erosteko gai balira berenaz... edo gabe ibiltzeko ez pafira ahalge larru ilhunaren gatik...
haatik horiek ere beharbra berak baino haundichago batzuri!... ikusiz ikasiak dituzkete jestu horiek. ezen haur guziak ere gaizkirat lerrakor izanagatik etzaizkote beti beren baitarik heldu zombaiti... geroat nekez kasatzen zaizkoten: yaidura tzarrak:: leheneko aita batzuk... ez dutekolakorik erakutsi beren haurreri!... zombat nahi fite ahantziak izanagatik zoinbaiten partetik mundu huntarik...
horra eskual herrian pasatzen diren gertakari batzu argirat emanak
Ou bainoh obe da denek jakin dezaten kargu dun batek edo bertzek... zer botereak dituzten berezikimakuraren partetik beren menekoeri mendekazeko
Batzuri afruntu eta bertzeri makurrak eginez baizik satifurik ez duen gizon iduriak ez du kario bako mundu huntan eta biziki



gutiago bertzean: halakoek ez dute merezi girichtinoaren izena ere.
Aiseda erraitea iduritzen zaikun Konpagnetan burua goititu eta (eskualdun fededun)
Dembora hotan eskual herriarentzat arrazoin hori erraiten duena jinkoaz trufatzen da::
Lehenagoko (incas) deitzen ziren jende arraza zahar batek bazuela Kondizione bat pilotaren gainean partida galtzen zuenari lepoa motz: pilota partida baten ikusterat nahi duena juaiten da eta nahi ez duena ezta juaiten hori pilotariak berrak ikuziendu ez pazaiko importarik bere jokoaz. bertziak ere ez direla acholatuak izanen haren ikusteaz:
Bainan aipatzen ditugun Kargudunen egin bidea bertzerik da.
D yadanik erran dugun bezela beren Karguaz profitatzen ahal direlakotz holako direnak beren menekoeri mendekatzeko ezin geiago.
herritzat behar laike (lege) hori
ezin geiago eskatuz itsuskeriarik haundienak eginez zoinbat aldiz... Eskuratzen duten Kargua ez padute hitzeman bezala ibiltzen jenden onetan lepoa motz... ezlitake orai bezembat trahidore eskual herrian berean bertzeak bertze..
halako zerbaiten ondotik bagindukebehar bada lehenago izan denaren ikusteko chantza eta ere

eraiteko dretchoa (eskualdun fededun!) maluroski dembora hotan faltsuki erraiten den bezein sanoki ez ginduke bertzerik desiratzen hortarat heldadin baitzik Kuraia gehichago bagindukke berriz harraratzeko jinkoak nahi badu berak lehen aldian ezarri gintuen tokirat - hautatuz ginduken egoitzari ere hurranago izaiteko haatik han ere harekin izaitekotan ahalaz! eta agian denak. Finitu baino lehen erranendut aita Gachitéguy edo halako zombaiten itzuliek ez lezakegula makurik egin: mendi hotan zombat nahi zintgoki ibiltzen izanagatik aita sainduarentzat ere othoitzak egiten dira beraz guk nola ez ginduke behar ordurik zerbait gehichagoren ere Lehtian aipatu izan dugun haro haundi haren bisitek baino herresto hobia utz lezakete edozoin gisaz... edo gisa guzietarat;
behar bada artikulu huni bortitz aire bat hatchemanen dio guneka... norbaitek; - bainan Frantzia zombat ere nahasia baita ez dut uste hango juge gusiek egia gusiak gezur bilhaka arazi nahiko dituzten... gezurra egiatzat egina izan daiken bezela...

Artzaina

FSC
MIXTO
FSC® C001636